

### **Estaintzen diren zerbitzuak:**

- **Ostatua eta mantenua:** ostatua eta mantenua ordaintzeko gastuak auzolandegiak antolatzen dituen erakundeak ordainduko ditu; hala, beraz, boluntarioak ez du ezer ordaindu behar. Aisialdi programa ere barne dago. Atzerrrian, zenbaitetan, aisialdia boluntario taldearen esku gelditzen da.
- **Asegurua:** auzolandegietan parte hartzen duten guztiek aseguru bat izango dute; eta aseguru horrek auzolandegietako jarduerak egin bitartean izan daitezkeen istripuei eta istripu horiek eragindako erantzukizun zibilari egingo die aurre.  
Bestalde, osasun-asistentzia bermatua izateko, auzolandegiko parte-hartzaile bakoitzak bere **osasun-txartela** eraman beharko du auzolandegira (Osakidetzakoa edo beste antzekoren bat). [Europako osasun txartela](#) edo Ordezko ziurtagiri behin-behinekoa (Certificado Provisional Sustitutorio delakoa) eraman beharko dute auzolandegia Europako Batasuneko herrialdeetan, Europako Esparru Ekonomikoko herrialdeetan edo Suitzan aukeratu duten guztiek. Halere, Eusko Jaurlaritzak, betiere osagarri, bidaiako asistentzia emateko aseguru bana kontratatuko du espainiar estatutik kanpora doazen guztientzat.

### **Ez dira sartzen:**

**Bidaia, antolakuntza eta gastuak** gazte bakoitzaren kontura dira. Auzolandegia egiten den tokiraino iristeko egin beharreko joan-etorrien gastuak boluntarioak berak ordaindu beharko ditu, bai eta bere kabuz antolatu ere.

### **Arauk**

- Proiektuan adierazitako orduetan **musu-truk lan** egitea, astean bost egunetan.
- Animazio-ekintzetako **programazioa garatzen laguntzea** eta bertan parte hartzea.
- Auzolandegiaren **antolakuntza** orokorrean (garbiketa, sukaldea, eta abar) **laguntzea**.
- Auzolandegian parte hartzen duten **pertsona** guztien ideologiak eta diferentziak **errespetatzea**.
- Auzolandegiak irauten duen bitartean, bertatik **alde ez egitea**.
- Auzolandegi bakoitzaren barne erregimeneko eta bizikidetasuneko **arauak errespetatzea**. Arauk, ondoko hauek izango dira beste hainbaten artean: ekintzaren



arduradunen aginduak onartzea; ordutegiak betetzea; auzolandegiak iraungo duen bitartean ez dira ibilgailu partikularrak erabiliko; alkohola duen edaririk edo legez kanpoko drogarik ezingo da hartu; auzolandegian lanean ari ez diren pertsonak ez dira onartuko.

- **Parte-hartze aktiboa**, doako laguntza, lagunari laguntza eman eta taldeari aberastasuna ekarriko dioten balioak eskaintzea.
- Ezarritako arauak ez onartzeak edo ez betetzeak auzolandegitik berehala kanporatua izateko bidea eman dezake.